

## TARTEKO MAILA AHOZKO ADIERAZPEN PROBA

- Proba binaka egingo dute azterketariak (gerta daiteke inoiz hiruko taldea osatu behar izatea ere).
- Ariketa batean 2 minutu izango dituzte ataza egin aurretik informazioa irakurri eta atazari heldu eta prestatzeko; bestean minutu 1.
- Azterketariak ahozko jarduna grabatzea nahi baldin badute epaimahaiari jakinarazi behar diote ariketa hasi aurretik. Azterketarietako batek nahi izatea aski da epaimahaiak ahozko jarduna (bi azterketariena) osorik grabatzeko, beste azterketariak hala nahi ez badu ere.
- Azterketariaren batek nahiz biek egin beharreko probaren eta ariketaren aspektu edo alderdiren bat ulertzen ez badu, atazari ekin baino lehen epaimahaiari eskatu behar dio zalantza guztiak argitzeko.
- Epaimahaiak ariketa bat amaitutzat eman eta hurrengo ariketari heltzeak ez du esan nahi egindako ariketari buruzko baloraziorik egin denik; besterik gabe esan nahi du egindako ariketa edo ataza burutzeko zehaztutako denbora amaitu egin dela eta hurrengoari ekin behar zaiola.
- Probak honako atal hauek izango ditu: aurkezpena eta 2 ataza:

### AURKEZPENA (Ez da ebaluatuko)

- Atazari ekin baino lehen azterketariak labur-labur beren burua aurkeztuko diote epaimahaiari eta azterketakideari.

### 1. ataza: ZER ESAN DEZAKET GAI HONI BURUZ?

### **ADIBIDEA**

- Azterketariak fitxa bana jasoko dute: argazkia / grafikoa eta/edo testu laburra / hitz adierazgarriak.
- 2 minutu izango dituzte fitxa irakurri, eman zaienaz jabetu eta atazari lotzeko.
- 1. azterketariak gaiak dakiena adieraziko du eta gaiari buruzko iritzia emango. (Ataza hau burutzeko 3 minutu izango ditu gehienez azterketariak).
- 1. azterketariaren jarduna amaitutakoan 2. azterketariak jasoko du fitxa (inoiz 3. azterketariarik ere egokitu liteke). 2. azterketariak ere 1. azterketariak egin duen gauza bera egin beharko du.

## 2. ataza: ELKARRIZKETA

## ADIBIDEA

- Azterketariek fitxa bana jasoko dute: informazioa, ideiak, planen bat,... Azterketari baten eta bestearen (besteen) fitxak ez dira berdinak izango, baina bai bata bestearen (besteen) osagarriak. Datu horiek eta informazio hori oinarri eta abiapuntu dituztela, azterketariek zer edo zer adosten, emaitza bat lortzen, plan bat zehazten,... ahalegindu beharko dute.
- Minutu 1 izango dute fitxa irakurri, eman zaienaz jabetu eta atazari lotzeko.
- Jasotako datuak eta informazioa oinarri eta abiapuntu dituztela, azterketariak, elkarrizketa eta negoziazioaren bidez, akordioa iristen, emaitza bat lortzen, plana edo hitzordua adosten,... ahalegindu behar dute. Ataza burutzeko ez da nahitaezkoa akordioa iristea, hitzordua, plana,... adostea. Helburua informazioa elkarren artean trukitzea da, nork bere egoera eta zirkunstantziak azaltzea, erabakiak hartzeko prozesua jarraitu eta kudeatzea,... Gerta daiteke azkenean akordiorik eta adostasunik ere ez iristea. Ataza hau burutzeko 6 minutu izango dituzte gehienez azterketariek.

## PROBAREN BALORAZIOA

- Azterketariak 20 puntu eskura ditzake gehienez proba honetan.  
20 puntuak honela banatzen dira:
  - 1. ataza: 8 puntu
  - 2. ataza: 12 puntu
- Proba hau gainditzeko gutxieneko puntuazioa: **12 puntu**

- Hona hemen **AISIALDIARI** buruzko argazki bat eta testu bat.
- Komentatu eta zure iritzia eman.

Udan denok  
gozatu nahi dugu hondartzaz.

Badakigu  
zer aurkituko dugun  
eta, hala ere,  
hara goaz.



- Hona hemen **AISIALDIARI** buruzko argazki bat eta testu bat.
- Komentatu eta zure iritzia eman.

Neguan elurrak  
kirolak praktikatzeko aukera zabala  
eskaintzen digu.

Gero eta jende gehiago hurbiltzen da  
eski estazioetara.



- Hona hemen **EGURALDIARI** buruzko argazki bat eta testu bat.
- Komentatu eta zure iritzia eman.

Udan  
gero eta bero handiagoa egiten  
du.

Suteak sortzen dira,  
bai berez bai jendearen erruz.



- Hona hemen **EGURALDIARI** buruzko argazki bat eta testu bat.
- Komentatu eta zure iritzia eman.

Gure herrian ere  
euriteak eta uholdeak  
gertatzen dira.

Eta inoiz  
ez gaude prest  
arazoei aurre egiteko.



Maiatzeko zubia

**A IKASLEA**

- ✓ Maiatzeko zubian elkarrekin oporretan joateko asmoa duzue.
- ✓ Bakoitzak bi leku proposatzea erabaki duzue. Horretarako kontuan hartuko duzue:
  - ostatua
  - eguraldia
  - garraiobidea
- ✓ Zuk ondorengo proposamenak egingo dizkiozu:



EDO



- ✓ Saiatu ados jartzen.

Maiatzeko zubia

**B IKASLEA**

- ✓ Maiatzeko zubian elkarrekin oporretan joateko asmoa duzue.
- ✓ Bakoitzak bi leku proposatzea erabaki duzue. Horretarako kontuan hartuko duzue:
  - ostatua
  - eguraldia
  - garraiobidea
- ✓ Zuk ondorengo proposamenak egingo dizkiozu:



EDO



- ✓ Saiatu ados jartzen.